

# Zuen zimurrak

Nagore Amondarain



Espazioak txikitu zituzten, garai bateko paisaia suntsitua argazkietatik ezagutzen dugu. Espazioak suntsitu zituzten arren, sarraski handienaren aurrean ere adorea nagusitu zen gurean. Batez ere gure emakumeengan gorpuztu zen adore hau.

Aipatu paisaia suntsitu horiek, besteak beste, Picassoren Guernica koadroan eszenifikatu ziren. Infinitora luzatzen den ohiua da koadro hori, infinitora luzatzen den zauria bezala.

Emakumeak eurak arduratu ziren deserrotzeaz; eurak arduratu ziren gurdia, etxeko ganadua eta osterantzekoak hartu eta herrietatik hirira ihes egiteaz, jakin barik bueltan ez zutela manta zahar bat ere topatuko. Hirian, lurrazpiko sotoak prest zeuden emakume eta haur andana hartzeko.

Gure amamak kontatu zigun hirira ihes egin zutenean sukaldeko tresneria guztia, maindireak eta bestelakoak kortan gorde zituela zimaurren azpian. Etxera bueltan, ez zen joandakoan gordetakoaren aztarnarik geratzen. Guztia eramane zuten, baita zimaurren azpian gordetako ere. Eta lapur horiek ez ziren urrutiko lubakitik etorritakoak. Gerora jakin zituzten, jakin eta isilean eramane behar, lapurren izen-abizenak. Auzoan norbait hiltzen zenean, hilotza bisitatzera joandakoan hantxe ikusten zituzten euren etxeetako plater, zartagin, maindire eta osterantzekoak. Guztiek ez baitzuten babestearen beharrik izan garai haietan. Gerra Zibileko irabazleak ez ziren hain urrutitik etorri; haietako asko herrian bertan ditugu, eta orduko sasoietan, auzoetan bertan zituzten.

Espazioaren berregitea tokatzen zen gerra galdutakoan. Picassoren koadroari beste kolore bat eman behar zitzaion eta, horretan ere, berregite lanetan ere, geure amamak ibili ziren, euren zimurrak areagotzen, luzatzen, infinitoraino luzatzen. Behin idatzi nuen poema bati “Zure zimurrak, amama” jarri nion izenburua. Begiak itxita euren zimurrak perflatzan ditugu oraindik ere, gogoan ditugulako.